


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Irailak 7 75. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

ANTON EGIA:
"Delitua dagoen tokian
egongo gara"




JON IRIBERRI

"Larrosak,
noizean
behin"



PASTORALA ARRASATEN



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

Zugandik hurbilena



Kaixo lagunok!

Hemen gaituzue berriro ere, indarberrituta, denboraldi berri honetan zeuei programarik erakargarri eta interesgarrienak eskaintzeko asmoz.

Hasi gara lanean. Gogoratu: arratsaldez (astelehen, asteazken eta ostiraletan) edo eguerdiz (astearte, ostegun eta larunbatetan), zeure telebista, Arrasate Telebista.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA



Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1,
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Beñardo Kortabarria
Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetak:
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontsellua: Jose Felix Diaz de
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Pabxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Eukeni
Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,
Joseba Vallés, Karmelo Urizarren,
Iñaki Aranburu, Hankamotz,
Maite Toledo, Atalataikoan, ASA Taldea.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tziaren erantzunkizunik.

Hauek ez dira nik ezagutzen ditudanak

James Truslow Adams zalduna, beste gauza askoren artean idazle da. Iparramerikan jaioa, zenbait dekadatan zehar bere herkieen gaineko artikulu eta liburu ugari idatzi ditu. Nik ez dakit, bere garaian lortu zuen arrakasta gaurregun ere emango ote zen. Egia esan, urte batzuk igaro dira, jarraian komentatuko ditudan eritziak idatzi zituenetik eta -ene ustez- nekez lotu daitezke orduko eritziak eta oraingo errealtatea. Baina, tira!, dakusagun nondik nora zihozen Truslowen teoriak:

- Iparramerikarrak emakumearen balorea altura garaitzein bateraino eramane du, iparramerikarren bi kulto erraldoiak bandera eta emakumea direlarik.

- Pasionalismoa ez da, Iparramerikan den fenomeno.

- Konbentzionalismo eta maila sozialak ezabatuta daude iparramerikar gizartean. Demokraziak mirakulu hori egin bide du.

- Iparramerikarrak zera uste du, bere herria mundukorik onena dela. Horrexegatik esportatu nahi izan

omen du bere modelo gainerako herrietara.

- Txisteak maite ditu baina be-
reak onenak direla pentsatzen du,
horretan inolako zalantzarik ahalbi-
deratzen ez duelarik.

- Munduko gizakirik abegitsuen-
tzat dauka bere burua.

- Amerikarrak ez du inoiz gerra
maite izan. Aitzitik, bakearen aldeko
mugimenduen eragilea izan da his-
torian zehar.

- Iparramerikarra ez da batere
zuhurra. Dirua maite du, hori bai,
baina eskuzabala ei da hurkoarekin.

Truslow jaun jator horrek, horiek
eta horien gisako harri bitxi gehiago
ere idatzi zituen "Iparramerikar ba-
teñ erretrato amaigabea" deritzan
artikulu luze batean. Estatu Batuetako
hiritarren izakeraz aditu ez den
idazle apal honek hauxe gehi die-
zaioke gaurko iruzkinari: berak eza-
gutzen dituen iparramerikarrak ez
dira mugaketa zabal horretan sar-
tzen. Agian, Osaba Samen kideen
gaineko historia beste era desberdin
batez kontatu diotelako. Nork jakin!

Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona

IK3

inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

Hezkuntzako euskara teknikaritza

Deba Garaiko Euskera Teknikari ohi honek azken bost urteotan lankide izan zaituzten guztiok, lerroon hartzaille izan nahi zintuzkete.

Opor egunak gainean genituela izan nuen lanpostu desagerpenaren berri hotza. Fetxa horietan ezin, bada, nik zuekin gai hau erabili eta elkar agurtu. Egia esan, ez didate ezelako arrazoirik eman, susmorik badudan arren. Dena dela, zenbait une larritan zuengandik jaso dudana laguntza estimagarria ahaztu ezinik, lanpostu horietatik, oraindik ere euskeraren alde makina bat lan egiterik badaukazueno adorea eta elkartasuna opa dizkizuet. Guk guztiok ondotoxoz ezagutzen ditugu lan horretako atzeraurrek sortzen dituzten karamila kaltegarriak zein desatsegin eta sakabanatzaileak diren, baina baita

eginaz joan garen lanaren premia eta emankortasuna ere; ez bada etsi!

Erabakia hartu duenaren buruan dantzatu den arrazoia zigortzea, alperrikakotzat jotzen zuen lana deuseztatzea edo bere ideien etsaia zen lana ekiditea izan den, jadanik ez da garrantzizkoa, bai ordea, zuek, orain arte legetxe gizartera dezakezuen lana. Gure lanak eskaini izan dituen aholkularitzak eta laguntzak erdietsi gura izan dutena zera izan da, euskaraz dihardutenek gureaz baliatuz aurrera egitea. Aurrerantzean nire irakaskuntza postutik, bada, kide fidela izango nautzue hainbatekin burutzeko nituen zenbait konpromezu betetzerik izango ez badut ere.

Jarrai dezagun elkarrekin lanean eta ez dakigula baikortasunik falta izan egoerarik ilunenean ere.

*Resu Abasolo
(Aretxabaleta)*



gili gili
Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE
Liburu eta oparidenda
Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO
Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atekak
Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK
A. ZANGITU
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

AURRERATZEKO
SF
AIZKORA
AUTOZERBITZUA
Maalako Errabala, 7. Tfnoa: 79 15 56

JOSTEKO
ARETXABAETA
OIHAL DENDA
Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90
ARETXABAETA



Arantzazu Loidi eta Beñardo Kortabarria



Jon Andueza




Bego Zubia

Aurpegi berriak Arrasate Pressen

1990-91 ekitaldi berrirako aldaketak izan ditugu Arrasate Presseko erredakzioan. Joan direnen artean Begoña Zubia eta Jon Andueza. **Begoña Zubia** Arrasate Pressen sorreratik izan genuen gurekin. Aurrerantzean Egin egunkariaren berriemailea izango da Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan. **Rikardo Arregi kazetaritza saria** irabazi berri duen **Jon Andueza**, berriz, Estatu Batuetara joango da, ingelesez landu eta kazetaritza master bat egiteko asmoz. Bioi gure eskemik beroenak eta desiorik onenak aldi berrirako.

Haien ordeaz Arantzazu Loidi eta Beñardo Kortabarria ditugu. **Arantzazu Loidi**, 23, aretxabaletarrak *Argia*, *TU-Lankide*, *Hemen*, *Aretxagazeta* eta bestelako argitalpenetan idatzi izan du. **Beñardo Kortabarria**, 28, antzuolarrak Leioan ikasi zuen kazetaritza. Bergara eta Antzuolako berriemailea izan da *Egin* egunkarian. Baita *Irinmodo*, Antzuolan egiten den urtekariaren lankide. Ongi etorriak!

Zer iruditzen zaizu Golko Pertsiarrean gertatzen ari dena?



Alejandro Rodriguez
(Langilea)

Hor interesak daude eta ez dakit nondik. Amerikarrak liatu egin dira. Gaizki iruditzen zait eta Euskal Herrian inork ere ez du joan nahi.




Pilar Ugarte
(Etxekoandrea)

Egia esan, telebistan hura ikusten dudanean kendu egiten dut, higuina ematen dit. Soldaduak hara bidaltzea berriz, pentsatu ere ez.



Mari Karmen Albez
(Pedagogo)

Nik uste dut inork ez lukeela parte hartu behar, ez zait ondo iruditzen.




Justo Moreno
(Jubilatua)

Nik ez dakit zer pasatzen den, baina gerra kontua txarra da. Ez da hara inor bidali behar.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

KOPIOTXOA

Fotokopiatik
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE



BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

Memesa

79 42 22

URRIN

Urbarril Etorbidea 22, Tfnoa: 79 95 24


KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK

ARRASATE

PRESS

77 05 65

BEHARREZKO TELEFONOAK



ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZTA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zúbillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iurbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

7 OSTIRALA

— Zinea: Alai: "El club de los poetas muertos". 7 eta 9.30etan.
Novedades: "Difícil de matar". 10.30etan.

— Gatzagako jaiak: Iluntzeko Betan gazta, ogia eta ardoarekin afari merienda.

Gaueko 12etan dantzaldia Bries taldearekin.

Goizeko 4.30etan sokamuturra

— Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

8 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "Mira quien habla". 5. 7.30etan eta 10.30etan.

Novedades: "Difícil de matar". 5. 7.30 eta 10.30etan.

— Pastoreleko jokolariekin kalejira Arrasateko kaleetan zehar, eguerdiko 12.30etan.

— Gatzagako jaiak: Arratsaldeko 5etan herri kirolak Perurena harrijasotzailearekin eta Saralegi aizkolariarekin.

Arratsaldeko 6etan bertsolariak, Joxe Lizaso, Gorrotxategi, eta Agirre.

Gaueko 12etan dantzaldia Berakatz Band taldearekin.

— Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

9 IGANDEA

— Zinea: Alai: "Mira quien habla". 5, 7.

30 eta 10.30etan

Novedades: "Difícil de matar" 5, 7, 30 eta 10.15etan.

— Gatzagako jaiak: Goizeko 9etan afizionatu mailako txirindulari iasterketa.

Eguerdiko 12etan meza nagusia.

Eguerdiko 2.30etan Herri bazkaria.

Gaueko 10etan dantzaldia Karxo taldearekin.

10 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "Mira quien habla". 7 eta 9.30etan.

Novedades: "Difícil de matar" 7.30etan.

— Goardiako farmazia: A. M. Morales, San Andres.

11 ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "Mira quien habla". 7 eta 9.30etan

— Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

12 ASTEAZKENA

— Zinea: Alai: "Este muerto está muy vivo". 8.30etan.

— Goardiako farmazia: M. Corcuera, Musakola.

13 OSTEGUNA

— Zinea: Alai: Ez dago emanaldirik.

— Goardiako farmazia: L. Amezua, Sta. Magdalena.

ERAKUSKETAK

• Juan Antonio Unzurrunzagaren argazki erakusketa Monterroneko Kultur Etxean.

MATRIKULALDIAK

• Udal Euskaltegia: Matrikula zabalik dauka Irailaren erdialderarte maila guztietan eta ordutegi desberdinetan. Informazio gehiago 79 70 77 telefono zenbakian, bulego orduetan.

• AEK-k matrikula epea zabalik dauka datorren 28arte, goizez zein arratsaldez. Maila guztietako ikastaroak emango dira, aukerako ordutegietan. Informazio gehiago 79 71 12 telefonoan aurki daiteke.

• AHIZKE—CIM zentroan irekita dago hizkuntzak ikasteko matrikulaldia.

GAZTE ZERBITZUA

• "Gazteak gazteen ikuspegiatik" argazki-lehiaketan parte hartu zutenek, irailetik urrira arte dute epea lanak jasotzeko. Gazteentzako informazio bulegotik pasa beharko dute, bulegoko orduetan.

PASTORALA ARRASATEN



**ANIMATU
ETA
ETORRI!**

Larunbat honetan,
Irailak 8, Arrasateko Monterron Parkean eta
arratsaldeko 4.30etatik aurrera, Zuberoako ikastolek "ABADIA URRUSTOI"
izeneko pastoral antzetzuko dute.

LARUNBATEAN, ARRASATEARROK MONTERRONen dugu zita.



Larunbatean eguerdiko
12.30etan Monterronetik hasita,
Pastoralaren partaideek
KALEJIRA egingo dute erdigu-
neko kaleetatik zehar.

“ Arrasate ez da edozein modutako herria. Gipuzkoaren erdian kokatua, abertzaletasun erradikalaren epizentroetako bat kontsidera dezakegu. Arrasate ez da alperrik Domingo Iturbe Abasolo “Txomin”en jaioterria.

Arrasaten ireki zuen Euskadiko polizia autonomoak bere lehen komisaldegia, ordurarte Guardia Zibilak zituena funtzioak bereganatuz. 1984eko udan izan zen”.

(...) Arrasateko delinkuentzia maila Espainiako beste edozein herritakoa bezalakoa da. Berrogeitamarren bat heroinazale dago, herrian egiten diren delituetan gehienak egiten dituztenak. ‘baina hemen ez dago drogarik, kanpoan erosten dute, herri handietan’ diote ertzaindegian”.

(...) Ertzainen artean oso gutxik hitzegiten dute ongi euskaraz. Gutxi gorabehera gizarteko euskarazko hiztunen kopuru berdintsua da, ehuneko 10 eta 20 artean”.

(Gustavo Catalan, *El Mundoren Magazinean*)

“ Lan Kide Aurrezkiaren jabe kooperatibak eurak dira. Behar ekonomikoei erantzuteko sortu zuten kooperatibek. Normalki alderantziz gertatu ohi da”

(...) “Nora iritsi asmo du Arrasateko Kooperatiba Taldeak?”

Europako egungo egoeran daukagun proiektua superbibentzia da, eta ez da gutxi, merkatuko baldintzak benetan latzak dira eta”.

(Javier Mongelosek *El Mundo* egunkarian)

“ ATB da euskara hutsean emititzen duen Euskadiko telebista bakarra”.

(Julio Flor kazetariak, *Tribuna* aldizkarian)

Zer erizten dio EHNEk prozesionaria fumigatzeari?

Esango genuke fumigazio orokorraren aurka gaudela ez dutelako diferentziarik egiten soro, arbola edo ganaduaren artean, eta horrek kalteak eragiten dituelako. Bestalde, argi daukagu prozesionariarekin

oso problema larria dagoela eta zerbait behar dela azken urteotan problema hori asko gehitu denez.

Zer gertatzen da fumigazio hauen aurrean?. Duda handiak daukagu eta baietza edo ezetza ematea ez da batere erraza. Alde batetik egia da fumigazioak prozesionariarekin bukatzeko era bat direla, baina inguruan dauden etxe, soro, ortu, ganadu eta abar ere hor daude eta kontu handiz bota beharko lirateke, basoa ikutuz bakarrik.

Horretaz aparte, azken ikerketek ez dute batere lagundu dauden zalantzak argitzeko. Betidanik esan da dimilinak ez duela momorroetan besterik eragina izaten, momorroen kutikularen formazioa atzeratzea besterik ez zuela egiten, eta azken ikerketek diotenez, ingurugiroan ere badu eraginik.

Fidagarriegia ez izateko beste arrazoi bat segurasunarena litzateke, ikusten dugunean Estatu Batuak eta Holandan adibidez erabilera oso mugatua dela, pertsonal espezializatua eta inguru konkretuetan erabiltzen delarik.

Gipuzkoa mailan egin dugu honen balorazioa eta lehenik ikerketa serio baten beharra ikusten genuen, gero horren arabera jokatzu.

Maite Aristegi,
*Euskal Herriko Nekazarien Elkarte*ko bozeramailea



FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

*Gipuzkoako Elorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50*

“Abadia Urrustoi” Pastorala Arrasaten

Larunbat honetan, irailaren 8an Pastorala iritsiko da Arrasatera, Iparraldetik kanpo eskainiko den antzezpen bakarra ematera. Arratsaldeko 4 t'erdietan ikusi ahal izango ditugu Monterrongo parkean, Hegoaldean oraindik ere hain ezezaguna den antzerki mota hau egiten.

Orain arte, Zuberoako herri ezberdinek hartu izan dute pastoralara antolatzearen ardura eta aurtengo da kultur elkarte batek bere gain hartzen duen lehenengo aldia. Seaskak, bere 20. urteurrena dela eta, Maule eta Atharratzeko ikastolei eman die lana. Guztira ehun lagun dira parte hartzen dutenak, ikasle,

irakasle eta gurasoen artean, eta agertokian azaltzen direnak 70 nagusi eta beste hamabost neska-mutil. Guztiak afizionatu hutsak dira eta orain arte Iparraldean egin dituzten emanaldi biak eta oraingo Arrasatekoa prestatzeko ordu pila handia sartu behar izan dute, mugimenduak, dantzak eta testuak ikasten.

Aurtengoak Antoni de Abadia Urrustoi astrologo euskaltzalearen bizitza kontatzen digu eta testua Jean Louis Davantena da

Arrasatera ekartzearen helburua, Iparraldeko ohitura zahar hau gure artera hurbiltzea da, mugak apurtu eta hara joaten ez direnei pastoralara



Zuberoakoen ondoren, hirugarren emanaldia

bertaratuaz. Harremanak estutu nahi dira eta ekitaldiarekin ateratzen den dirua Seaskari laguntzeko izango da. Sarrera 700 pezeta.



Besaïden monumentua 25ean jarriko

Besaïdeko eskultura berria, hilaren 25ean ospatuko den mendizalearen egunerako amaitu nahi da. Joshin Ogata eskulturgile japoniarrak egina, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiak bat egiten duten lekuan jarriko da, eta horretarako inguru guztia txukunduko. Gogotik lan egin ei du japoniarrak, Markinatik ekarritako harriak aipatutako egunerako irudi bihurtuta egon daitezzen.

Beherapenak

LORAMENDI



KIROLAK

DENA KIROLA EGITEKO

Txandalak, kamisetak, bainujantziak %50erainoko beherapenarekin.

Ez galdu aukera hau!



PEÑACOBBA
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

ORTZI
erretegia

Angiozar auzoa

Tfnoa: 76 22 68

BERGARA

Auto lapurreta eta istripua

Joan den astelehenean C15 furgoneta bat ostu zuten Arrasateko Zerkaosteta kalean eta lapurreta horren berri jakitean, une horretan Arrasateko basean zeukan helikopteroa bidali zuen Ertzaintzak, Bizkaia aldera ihes egiten harrapatuko ote zuten. Arratsaldeko zazpiak inguruan Apatamonasterion zetorela istripua izan zuten auto horretan zetozen bi gazteek. 'Periko' izenez ezaguna den arrasatearra istripuan hil zen eta berarekin zihoan laguna, 'Gigio' izeneko eskoitzarra onik atera.

Goikobalu abesbatza

San Bizente de la Barquera-n uztailearen 29an jokatu zen itsasoko abestien lehiaketan laugarren saria eskuratu zuen abesbatza arrasatearrak eta punta gutxiren aldeagatik finalera pasa barik geratu. Euskadiko eta estatuko beste hamabi talderen artean abestu zuten arrasatearrek Luis Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean eta oroigarria eta 50.000 pezetako akzesita etxeratu.


Roneo oraindik zutik

Etxebizitzak egingo dira hustutako orubean

Abuztuaren amaieran hasi ziren Roneoko lantegi zaharra botatzeko lanak, orubea etxebizitzak egiteko uzteko asmotan. Badirudi 140 etxebizitzatik gora eta garajeak egingo direla Garibai kaleko zati horretan Oraindik ere ez da erabat bota eta aste honetan ere betiko itxura bera erakutsi digu, aurretik begiratuta behintzat, nahiz eta kamioientzat egin behar izan den arrapak taju ezberdina eman goitik beherakoan.

1989ko maiatzaren hasieran ekin zitzaion prozesu honi Udalaren alde-tik, orube horri dagozkion Arau Ordezkatzaileetako elementuak aldatzeko egindako proposamenari oneritzia eman zitzaionetik. Industriadako izatetik herrilur izatera pasa zen horrela lursail hori, etxebizitzak eraiki ahal izateko.

Badirudi aurrerago inguruko etxeak ere botatzeko asmoa dagoela baina oraingoz ez da jabeen eta Laukale promotoraren arteko ados-



Roneo, Zerkaosteta kaletik ikusita

tasunik lortu. Guzti honekin pil-pilean dago Arrasaten etxebizitzaren arazoa, Altamira, Uherkape, Ferixaleku eta Arrasate Pasealekuan egingo diren etxebizitza multzoekin konponbidean jarriko dena.



San Prudentzioko kurban

Oporretatik bueltan Bergara aldera joan denak ikusiko zuen San Prudentziara iritsi aurreko kurban kamino bazterra ez dagoela utzitako moduan. Abuztuaren erdi inguruan, kamioi bati karga irauli zitzaion. Pisu larregi eramango zuen, inolaz ere, eta edari botilak kaino-zuloan uztea erabaki. Oraindik han daude, norbaitek jaso artean.



GATZAGA
Jatetxea

Arrasateko
jatetxea


Olarte kantola 3,
Tfnoa: 79 34 53

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,
Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE



CFCa %50ean gutxitu daiteke oraingoz

Hozkailuetan KFKa gutxitu

Fagor ozono geruzarentzat kaltea urritu nahian

Urtearen hasieratik hona, Fagor izena daramaten hozkailu guztietan %50ean gutxitu da klorofuorkarbonatu izeneko sustantzia, poliuretanozko aislantean erabilia. Honela, datorren urtetik aurrera elektrogailuetan derrigorrezko izango den nazioarteko araudia betetzen du Fagor-ek, eta arrasatearra da ingurunea ahalik eta gutxien kaltetuko duen sukaldeko tresna kaleratu duen lehen enpresa, oraingoz bakarria.

Arrasateko kooperatiban aspaldidanik dago ozonoa urratzen duten produktuak gutxitzeko joera, eta Fagor-eko Ikerketa sailean hozkailu ekologikoa lortzeko eredu lantzen ari dira. Esan digutenez, oraindik ikusteko daude isolatzaile berrien alde on eta txarrak.

Azken produktuaren kalitateari

dagokionez, ezin da esan galerarik dagoenik, nahiz eta isolamenduan ehuneko bosteko galera antzeman. Bestalde, kontsumoa gehitu egin ei daiteke apurren bat, baina egindako azterketek ez dute oraindik horri buruzko datu zehatzegirik eskaini eta mostra handiagoa beharko da kontsumo gehitze urri hori egiazta-tuko bada.

Ikerketa eta Garapen sailekoek euren kezka azaldu digute orokorrean KFK deituriko gaiaren gutxitzearen ondorengo elektrizitate kontsumoa dela eta. Badirudi horrek ere baduela bere eragina naturan, eta ez, txikiagoa, inolaz ere "negutegi efektu" deitua areagotu egiten bait da zentral nuklearrak direla eta. Ozonoagatik ez bada, tenperatura igoerarengatik naturarentzat kaltea.

Usteak uste...

Aurtengo abuztua historia da, gehienon oporrak bezala. Tarte horretan Arrasate eta inguriko herriak erdi luistik egon dira, baina akaso beste urte batzuetan baino gutxiago. Bergarako Labe-garaietan adibidez, lana egin dute lehenengo aldiz abuztuan. Horretarako langile batzuk uztailean hartu zituzten oporrak eta beste batzuk abuztuan. Seguruenik, datozen urteetan areagotu egingo da udako oporrak ez abuztuan soilik, batzuk eta urtean zehar banatuta hartzeko joera.

Hori heldu bitartean, alabaina, abuztuak segitzen du sorpresatxo-ren bat edo beste ematen.

Aurtengoan Arrasate zaharreko harresiaren zati bat aurkitu dute obratar ari zirela. Zorte apur batekin zutik iraun dezake murrailak. Garibai kaleko Roneo, aldiz, askoz ere eraikuntza berriagoa izanda ere, desagertzerik kondentatuta dago. Aurrerantzean bideoan eta argazkietan baino ez da gordeko haren irudia. Eta gure oroimenean.

Gure erredakzioan ere aldaketak izan ditugu. Ostiralero bezala Arrasate Press zuen postontzietan egon dadin, korrika eta presaka ibili behar izan dugu. Udala auzoan lanean ari den eskultore japoniarra bezala, Besaiden jarriko duen monumentoa agindutako egunean eginda ikusi nahi badugu.

Jaxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



IBARRA Garajea S.A.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

EBRO
NISSAN



Luis Larios argzkilariaren lana

II. Arte Hamabostaldia prest

Lau euskaldun eta hiru madrildar aurtengoan

Hamabostaldi taldeak dena prest dauka dagoeneko irailaren 17tik 30era bitartean gure herrian izango den II. Hamabostaldirako. Bost taldetan bildutako zazpi artista izango dira deialdia egin eta ondorengo aukeraketan hautatuak izan direnak. Guztira hamalau proposamen izan ziren, pintura, argazkia, eskultura eta grabatua gaitzartzen zutenak.

Etorriko direnen artean, lau euskaldun izango dira: Bergarako Dani Laskurain grabadorea, paper birziklatuan lan egingo duena. Altsasuko Txuspok, berriz, instalazioa egingo

du eta berrikuntza bat ere sartu du, 'Pelt Head' musika talde kanadiarra berarekin izango da eta. Musika esperimentalak dastatuko du tailer horretara hurbiltzen denak.

Xabin Egaña oñatiarrak instalazioa egingo du fotokopia eta margoaren teknika nahastuz. Beste euskaldun batek, Ana Laura Laez bilbotarrak txapa eta material plastikoekin egindako eskultura erakutsiko du. Azkenik, Madritetik ere etorriko da beste talde bat, Luis Larios argazkilariak, Angel Galipienzo margolariak eta Jose Boga eskulturgileak osatua.

Autobusak Unibertsitatara

PESA Autobus konpainia eta Udaletik sortu da ideia. Arrasate eta inguruetatik Donostia eta Bilboko Fakultateetara, egunero hiri bi horietara zuzenean autobusa jartzeko modua aztertzen ari dira. Bidaia goizeko txandan dabilzantentzat izango litzateke. Izena emateko epea astearte hilak 11 arte izango da, Garibai Etxeko Gazteen Informazio Bulegoan, goizeko 11etatik ordubiak arte, 77 00 65 tfoan.

Bi zuzenketa

Arrasateko Udalak ez dio Arrasateko Eskualde Ospitaleari obra baimenik eman, hainbat argibide jaso arte. Jose Letonaren artxiboari buruz, bestalde, guk besterik jarri bagenuen ere, ez dago inolako arazorik Letonaren familiarekin material hori aztertzeko. Euskaltzaindia eta familia elkarlanean ari dira eta bien artean markatzen ari dira epeak.

JAIOTZAK

Fernandez Loiti *Gorka*, abuztuaren 27an.
Sagasta Sanchez Oihher, 27an.
Ezpeleta Saez de Gordo *Olatz*, 27an.
Muruga Lamarain *Unai*, 29an.
Cid Orobengoa *Julen*, 29an.
Salegi Zezeaga *Iraitz*, 30ean.
Urria Agirre *Joseba*, 30ean.

EZKONTZAK

Juan Antonia Barberan & Beatriz Garai. Irailaren 1ean Zibilez.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^o Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^o Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularak.

Eskatu ordua, asteleheneetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



Harresiaren aztamak goitik ikusita

Harresiaren etorkizuna

Astelehenean erabakiko

Zerkaosteta eta Arrasate Pasealekuak bat egiten duten lekuan, Bediaren etxea zegoen tokian aurkitu den harresi pusketa albiste da egunotan. Aste honetan hirigintzako batzordearen bileraren ondoren, datorren astelehenean gobernu batzordean aztertu beharko da arrastoekin etorkizunean egingo denari buruz Udalbatza osoaren jarrera zein den ikusteko.

Badirudi bost edo sei alternatiba direla hasieran proposatutakoak,

baina horietan ez dira denak bideragarri, harresiari tratamendu egoki eta itxurosoa ematea garestia delako batetik. Agertu dena harresiari kanpora ateratzen zitzaion saietera denez, itxura aldetik ondo uztea zaila gertatzen da, oraingo kotaz azpitik bait dago kokatua.

Bebarruaren zati bat erosi eta harresia dagoen lekuan gordeko da itxura denez, etxeak egitera doan enpresarekin erdibideko akordioaren batera iritsi eta gero.

■ Arrasate Musikalen matrikula epea

Arrasate Musikalen ikasturte berriaren izena eman ahal izateko epea irailaren 10a arte izango da irekita. Solfeoko lehenengo urtea egiteko lehen gutxienezko adina 8 urtekoa da, urtean zehar beteko dituztenak barne.

Balletean izena emateko, berriaz, 6 urte eduki beharko dira. Arrasate Musikalen bulegoak arratsaldeko 5etatik 8etara izango dira zabalik, matrikula egin nahiz edozein informazio eskuratzeko.

■ Taberna eta ileapaindegia

Musakolako jubilatuen etxeko taberna hartzeko Udalak antolatu duen konkurtsorako epea irailaren 13an amaituko da, oporraldi ostean luzatu ondoren. Beste aldetik, Abarroako ileapaindegirako izenematea egun berean amaituko da.

■ Saihesbideak irteera berria

Arrasateko saihesbidea joan den ekainaren 7an inauguratu zenean, oraindik ere erdigunerako sarbiderik gabe geratu zen. Udalaren eskariz, Nafarroa Etorbidea bidea egiteko baimena eman zuen Diputazioak, kopuru berria bere gain hartuaz. Sarrera honek Eskualde Ospitalera zuzenean iristeko aukera ematen du, eta batez ere kanpotarrentzat izango da baliagarri

AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES

IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE



Chel Chaonen (Marokko).- Argazkikoak ere badu moro itxura. Eta mundu hura gustatu ere egin zaio, nonbait, bigarren aldiz joan da eta *Julen Arejolaleiba* Marokkora 18 egun egin dituzte lau lagunek autoz joanda eta astebete kostaldean egin. Argazkiko azoka horretatik hurbil, momentu batean 9 arrasatear elkartu omen ziren tea hartzen. Badagoela harako zaletasuna ere!



Burkina Faso (Afrika).- Izaskun Arana Malira joan zen, Mauritania eta Algeriaren hegoaldean, 20 pertsonaz osatutako taldean. Gehienak katalanak, madrildar batzuk eta hiru euskaldun. Batetik bestera joateko, kamioi handi bat erabili zuten. Denetara hogeitahiru egun egin zituzten Mali, Burkina Faso eta Bolikosta bisitatuz. Bobo Dioulaso-ko emakumeari izaskunen ilea gustatu eta birikordak egiteari ekin zion.

Burgos (Santiago bidean).- Joakin Etxeberria, Joakin Arana, Xandro Arregi eta Pepe Gimenez ditugu argazkiko lau ibiltariak. Urrutiko lurretara joan beharrean, ohitura zaharra jarraituz erromes ibili dira mongragoetar hauek, makila eskuan hartuta. 709 km. egin eta gero espero baino lehen iritsi ziren Santiagora, abuztuaren 12an. Zorionak!



BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

URONDO
elektrizitatea



- * Elektroiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

L ARRINGAN
auto gidarien eskola
KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Garibi 3, 79 22 96 ARRASATE




Niembro (Asturias).-Xabier Zubizarreta alkateak Asturias aukeratu zuen bere oporrak pasatzeko, uztailko 15 egun mendia eta itsasoa nahaszi. Picos de Europa ibilaldi batzuk egin ondoren, eguzkia Niembroko hondartzan. Ekain eta Oihane egindako hareezko gazteluak argazkian, eta alkatea hirigintzan.



Berlin (Alemania).-Campingdenda berebilean sartu eta Alemania-rantz abiatu ziren Elortzatarrak. Han eta hemen geldituz, Frantzia, Belgika, Alemania, Austria eta Italiako lurak bisitatu dituzte 21 egunetan. Unerik gogoangarrietakoa argazkiko hau. Jose Ramon eta Denis aita-semeak, Berlingo harresiaren zatiak eskuratu nahian.

Kungeral (Pakistan).-Mila Urzela eta Begonia Errasti atxabaltarrak erdian eta Miren Uribebarria eskoitzarra eskuman gorritz., horiek dira argazkiko aurpegi ezagunak. Pakistango mendi punta batean daude argazkian, 4.700 m-tara. Atzean Pakistan eta Txinaren arteko mugaria, hilabete pasatzeko inguru polita. Argazkilaria **Karlos Arizabaleta** arrasatearra dugu.



Bali (Indonesia).-Berri eguzkitsuak datoz arrozaren lurraldetik: **Iñaki Jauregi** garagartzarra Indonesian izan da beste bederatzik euskaldunekin. Arzoa landatzeaz asperturik turismotik dirua ateratzea pentsatu duen nekazaria planta ederrean jarri da argazkirako. Bufaloak, berri, argazkietara ohituta dagoela dirudi, turismoaren arrastoa adarretan duela.



IRAKASLE ESKOLA

Irakasle Eskola honek zera jakin arazten du:

**1990-91 IKASTURTERAKO
MATRIKULAZIO-EPEA ZABALIK
DAGOELA IRAILAREN 26arte.**

Informazioa:

IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA (Gipuzkoa)

Tfnoa: 943- 79 04 40

Ordutegia: 9-12 eta 15-18

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

KAJI IABENA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27



Jabier Irastorza Lan Kide Aurrezkiko zuzendaria zen. Uztailaren hondarrean Olandixoko diruetxea utzi eta Donostiako *Bankoara* joan zen kontseilari delegatu izateko. Lan Kide Aurrezkiko pasabideetan entzuten denez, Bankoak (Errealaren babeslea aurtengo denboraldian) milioi t'erdi pezeta ordaintzen dio hilero, hau da, Arrasaten irabazten zuena baino ia bost bider gehiago.

Eguraldi ederra egin arren, iaz baino jende gutxiago bildu zen Kanpazarko pagadira **San Inazio egunean**. Bazkarirako endemas, gutxi. Arrasate eta Elorrioko zinegotzi eta alkateek bizkaitarrek prestatutako bazkari ederra jan zuten. Bazkalostean doke partida eta hemen Arrasate nagusi, uste baino justuago hala ere.



◀ **Juanito Barberan** eta **Beatriz Garai**, joan den irailaren leian ezkondu ziren Arrasateko udaletxean, zibilez. Euren ezkontza izan da udaletxea ireki denetik han egin den lehena. Bazkaria Arantzazuko Hospederian izan zen eta bidaian Korsikara joan. Zorionak!

Adi!

INGELESA

Edozein maila

ORDUA: Goizeko 10ak eta 12ak artean
Arratsaldeko 2ak et 4ak artean.

Aproposa : etxekoandrentzat, langabetuentzat
ikasleentzat, dendarienzat eta
ordu horietan libre dauden guztientzat

PROMOZIOZKO PREZIOAK

Araba Etorbidea 4,
Tfnoa: 79 01 32
ARRASATE



ETXE-AUNDI

Dastapen-menua
irailaren 15erako

- Ortuari eta ganba-xehakina
- Keztatuen kabia hegaluze-belouté gainean
- Izokin eta erreboilo-abanikoa hiru konpotez
- Mugurdien aparra sagar-horrien gain kanela usainaz.

3.600 pta. BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

izen propioak

■ **Rafa Leturia**, 45, jaiotzez Zubillagakoa eta Arrasaten bizi dena, Luzuriagako Administrari bakar izendatu berri du Fagorrek. Rafak injinerutza ikasi zuen Gasteizen. Zerrajeran eta Coprecin lan egiten du orain arte.

■ **Iñaxio Kortabarria**, 40, garagartzarra, Donostiako Errealeko delegatu izendatu dute. Talde horretan urte askoan jardun ondoren, futbolari utzita dago arrasatearra, baina Erreala ez du oraindik utzi.

■ **Jose Ramon Zubizarreta**, 34, eskoitzarra, irakaskuntzako kooperatiben federazioko lehendakari izendatu dute oraindik orain. Bestalde, Euskadiko kooperatibetako Goren Kontseiluko batzordekide ere izango da. Joserra Bergarako Aranzadi Ikastolan ibili zen irakasle magistratza Gasteizen ikasi eta gero, eta azken 12 urteetan Almenen ari da O.H.O.-n eskolak ematen. Denbora librean aurkezle lanak egiten ditu Eskoriatzako Telesko-n.



Arrasate famatu egin da aspaldian. El Mundo egunkariak asteburuetan ateratzen duen Magazine bereziak Ertzaintzari eskaini zion erreportaiari hiru orri argazki eta guzti Euskal Herriko lehen komisardegia, Arrasatekoari.

◀ Andramaixetan buruhandi berriak atera dituzte Aretxabaletan. Aurrerantzean, herriko hiru aurpegi ezagun dira umeen atzetik puxikarekin ibiliko direnak: Litri, Bernabe eta Billi. Harro daude lehenengo biak, doblea ere badaukatela eta. Billi ez da aurrean jaietan herrian izan, eta hurrengoan atera beharko du argazkia. Ideia polita da atxabaltarrena, jaietan giroa berotzeko.



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen Iraunkorrekoak


Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!
Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia doan
 Kontzesiño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

Bularreko minbizia, arrisku neurgarria

Sistema ezberdinak bateratzearekin fidagarritasun handia

Minbizia esaten diote, baina kozkorra sendatzeko baino handiago izatera iritsi arte ez da minbera. Orain arte tabua izana, isilpeko gaia da orain ere, baina zabalduz doa emakumearen kontzientzia, eta denboraz harrapatu ahal izateko bideak jarriak dira. Hortik aurrerakoa emakume bakoitzaren lana da.



Ekainetik makina berria Arrasaten

Adin eta arrazoi jakinik ez

Entzuten direnak baino gehiago dira kasuak, bularreko kozkortxo guztiak ez dira minbizia baina. Estatu Batuetan egindako ikerketa batek dioenez, hamabi emakumetatik batek bularreko minbizia izateko arriskua du, eta minbizi mota ezberdinen artean, hauxe da, eta alde handiarekin gainera, emakumeari gehien eragiten diona. Berrogei urtetik aurrera arriskua areagotu egiten da. Emakumeak ez du ezelako molestiarik somatuko, baina konturatu barik kisteak lekua hartuko du bularrean. Zergatiak ugari aipatu diren arren, ez dago arrazoi garbirik, eta herentzia arrisku faktore garrantzitsua omen da.

Prebentzioa lasaitasun iturri

Gai honi buruz egiten diren dibulgazio kanpainetan autoesplorazioari ematen zaio garrantzirik handiena.

Izan ere, sexu harremanak dituen edozein emakumek hilero bere bularra aztertzen ikasi behar du, eta aurpegiko aldaketarik txikiena ere antzematen duen moduan, titian gogorruna edo ezberdintasunen bat somatu orduko jakinean jarri behar du ginekologoa.

Hilekoaren ondorengo egunak dira esplorazioa egiteko aproposenak, orduan egoten da eta bularra bigunen.

Gaur egun ez dago bularreko minbizia adin batzuetara mugatzerik, edozein adinetan hel daiteke

Denborarekin, emakumea bera izango da gaitzaren zeinuz jabetzen lehena eta denboraz jarri ahal izango dio erremedioa hala behar izatera. Arau orokor bezala, 35-40 urterekin oinarrizko mamografia egitea gomendatzen da, prebentzioaren hasiera bezala, geroko azterketa guztiak harekin gonbaratu

ahal izateko. Erradiazioa hutsaren parekoa dela eta, mamografia ez da arriskutsua, uste denaren aurka, eta gaur egungo teknikekin, ez dago minaren beldur izaterik.

Diagnostiko fidagarriaren atzetik


Ondo prestaturiko zentzura datorekin emakumeari lau aproba mota ezberdin egiten zaizkio, sistema ugari bateratuz diagnostiko fidagarria eskuratzeko: azterketa klinikoa, mamografia (bularrari ateratzen zaion erradiografia berezia), eta ekografiaren bidez kozkorra harrapatu eta aztertu egingo da, ona ala txarra den jakiteko. Pauso honetan gaur egun ebakuntza ez da beharrezko eta orain urte gutxi arte tumorarik txikienak ere bularra kentzea eragiten zuen arren, ahaleginez horretara iritsi beharrik gabe sendabidean jartzea da egungo joera.

Arrasateko egoera

Prozesu guzti horren berritasuna kontuan izan da, sistema bat baino gehiago batera erabiliaz diagnostiko fidagarria lortzeko Donostiako Onkologikoa besterik ez da egon orain arte. Ekainean, ordea, Arrasateko Kontsultategi Ginekologikoan bularreko patologian berezitatutako unitate bat jarri dute, mamografiak egiteko tresna berria barne. Kontsultategian bertan egin

ahal izango dira azterketa klinikoa, mamografia eta ekografia, eta bikorra edo kozkorra non dagoen eta nolakoa den ikusi ondoren, orratz batez baliatuz zati bat ateratzen da. Gero ez dago azterketa zitologikoaren zain geratzea besterik. Guzti hori ebakuntza eta eritxeratze barik.

Domingo Murgiondo sendagileak, bularreko gaitzetan adituak, adierazi digunez, oraindik Arrasate hasten dago gai honetan, eta ez dago kopuruak ematerik, baina emakume gazteak gero eta gehiago datoz. Hala ere, Holandan egin den esperientzia batean ikusi zenez, prebentzioko neurriak zorroztearekin %50ean gutxitu zen bularreko minbizi kopurua. Zifra esperantzagarri hauek izua kendu eta autoesploraziora bultzatu behar dute emakumea, bizi kalitate hobearen alde medikuntzan orokorki egiten den prebentzio lanaren barruan. Emakume bakoitzaren kasua ezberdina da eta bularreko minbizietan 500 mota ezberdin daude, beraz, nork bere burua ezagutzea izango da gako



Mamografia egitea orain ez da minbera

Emakumea zara orain ere

Itziarrek 44 urte ditu orain eta zortzi urte dira bere bularrean gauza arrotz bat somatu zuela. Bularra falta zaio, baina emakume arrunta da, kalean ikusten duzun beste edozein bezalakoa. Beste asko legez, bera ere berandu iritsi zen eta emakume mastektomizatua da. "Lehenengo pentsamendua heriotza da, baina gero borrokarako gogoia etortzen da", dio eguneroko arazo bat gainditu duenaren segurtasunez. Etxeko ardurari tabuak apurtzeko zailetasuna gehitzen zaio eta bakardadeak arazoa larriagotu baino ez du egiten.

"Norbaitekin berba egitea oso garrantzitsua da hulako egoera batean, komunikatzea. Medikua oso inportantea da, asko laguntzen du, baina hura ezin da denekin sentsibilizatu".

Itziarrek garrantzi handia ematen dio kasuen artean dagoen ezberdintasunari, izan ere, 500 kasu ezberdin deskriba daitezkeenez, alperra da kontseiluak ematen jardutea, "kontseilurik onena, biderik seguruenena, norkbere bularren azterketa egiten ikastea da, beste ezer baino lehen".

"Zergatik ez azaldu ez dela hain txarra? Aukera asko dago aurrera iritzeko, asko gara eta harremanetan jartzea ezinbestekoa da. Hala ere, bakoitzaren intimitatea errespetatu egin behar da, gaisotasunaren zenbait fasetan bakarrik egotea nahiz izango du eta emakumeak". Itziarrek talde baten berri jakin zuen, duela hiru urte. Emakume Mastektomizatuen Elkartea sortu zenetik, haiekin harremanetan jarri zen, "morboa alhora urzi eta beste modu batean hartu behar da arazo pertsonal hori. Hastera guztiak txarrak dira, eta oraindik ere tabu batean bildurik gaude. Hori dela eta, taldean sartzea proposatutakoan atzera egiten du askok".

Elkartean, hala ere, Gipuzkoako 140 emakume bildu dira eta euren helburua "informazioa ematea da, ahalik eia gehien, emakumea mentaliza dadin eia beldurrak bota". Garrantzi izugarria dauka urtero medikuarengana joateak eta ezer somatutakoan lehenbait lehen mugitzeak. "Minbiziari kolore bat ematekotan, gorria emango niuke, semaforoa bezala. Detektatu orduko, lehen seinalean medikuarengana".

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**


BAZAR
TOKI ON

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BRANKA
jatetxea

Eguneko menua eta karta


DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduku ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aldi beratan, erabilerazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-laruzko azalak, 24 kilatetako urrez gultan eginak estandazioekin.
- Landare-hariz jositako pleguak.
- Paper sendoa pika-pika bat hezur kolorekoa.
- Fotokomposizioa bi zutabetan egina, tipografia eder eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterketarako.

DICCIONARIO AMAIA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA




OBRA BEREHALA JASO NAHI BADUZU, DEITU 94 - 445 46 89 Tfnora. (ARANTZA)

Euskara ikasteko erabili beharreko obra

LASTER PREZIO IGOERA

Ernesto Amaia Argitaletxea
 Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
 Tfnok: 94-445 46 89 eta 446 69 93



Birpoesiagintzan urrats berria

Jon Iriberriren "Larrosak, noizean behin"

Jon Iriberrik, "Larrosak, noizean behin", bere lehen liburua kaleratu berri du. Jon Iriberrri aspalditik da Gerardo Markuleta hautatutako nortasun literarioa. Espainia eta Hegoameriketako literatur ikasketak egin zituen Donostia eta Oviedon. Garai hartan ekin zion idazteari, ama hizkuntza duen gaztelera erabiliz adierazpide. Euskara berreskuratzea pentsatu eta Euskal filofogia ikasteari ekin zion. Arrasate Press-eko "Zeuk Sortua" sailaren arduradun hasiera hasieratik, San Viator ikastolan ertainetako zuzendari pedagogikoa da.

— Arrasate Press: Lehen liburua kaleratu berri duzu, zer sentitzen da?

— Jon: Beldurra. Beldurra naizela esan behar.

— Zergatik Jon Iriberrri eta ez Gerardo Markuleta?

— Ezizena erabiltzea eskizofrenia baten islada da. Ni gaztelera idazten hasi nintzen eta gero euskara hartu nuen. Hor ere eskizofrenia apurren bat badago. Gaur egungo bizimoduak inposatu egiten dizkigu zenbait gauza eta baldar samar esanda, nire bizimoduarekin guztiz konforme ez nagoela esango nuke. Nahiago izan dut pertsonaia bat asmatu eta pertsonaia horri benetako bizitzatik hurbilago nagoen une horietan sortutako idazlanak leporatu.

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

— *Esan daiteke beraz, Gerardori, Jon Iriberrri izatea gustatuko litzaiokeela?*

— Horrelako zer bait. Postmodernidarearen kontuekin eta, nortasuna mila zatitan txikitu egiten dela esan ohi da. Jon Iriberrri nire nortasunaren niki bat izango litzateke, beharbada, niki hoberena, garbiena.

— *Literatur lanak egiten hasi zinean, gaztelera erabiltzen zenuen. Orain aldiz, euskara. Zerk bultzatu zintuen aldaketa hori egitera?*


— Nik betidanik esan izan dut, Gerardo Markuleta Gutierrez naizela. Aita eta aitaren familia osoa euskalduna da, ama berriz, erdalduna. Gure etxean, normalean, gaztelera hitz egin izan dugu. Txikitan euskara erabiltzen nuen, baina nerabezaroan edo, galduaz joan nintzen. Hutsune hori izan dut beti. Ikastera Donostiara joan nintzenean, euskara berreskuratzen hasi nintzen. Eskizofrenia arraroa ikusten nuen. Edozein modutan, nik gaztelera ere maite nuen eta nolabait menperatzen nuen. Literatura nire hobya izan da eta serioago heldu nionean, hizkuntza aldaketa hori egin nuen.

"Ez dut istoriorik kontatzen, baina gauzak bai"

Literatura eta poesia, iharduera marginalak direla uste dut eta euskaraz idaztea are gehiago. Horregatik esaten dut, poesia euskaraz idaztea birpoesia idaztea dela.

— *Birpoesia, zer esan nahi duzu?*

— Poesia, literatur generoen artean marginala da. Poesia idatzi edo irakurtzen dugunok, literatur komunitate txikia osatzen dugu. Kritikak eta merkatuak oso kasu gutxi egiten digu. Poesia idaztea beraz, iharduera marginala da eta merkatu editorialean baztertxo batean gaude. Beraz, euskal literatur komunitatea txikia izanik, poesia irakurri eta idazten dugunak, askoz



Jon Iriberrri

gutxiago gara, horregatik esaten dut euskaraz poesia idaztea birpoesia egitea dela.

— *Idaztea, zure ogibidea izatea gustatuko litzaizuke?*

— Oso zail ikusten dut. Liburu bat kaleratzea aurrerapausu garrantzitsua da, poesia liburua izanda ere. Edozein modutan, esan bezala, poesiari askoz ere kasu gutxiago egiten zaio eta literaturaz bizitzeko narratiba genero garrantzitsuagoa da. Nik narratiban ipuinak baino ez ditut idatzi eta azken bolada honetan, neure produktioa ez da oso ugaria. Ez dut ikusten nire burua literaturatik bakar bakarrik bizitzen. Beharbada hori litzateke nire ametsa.

— *Zer kontatzen diguzu liburuan?*

— Egia esan, gaur egungo euskal poesian gauza gutxi kontatzen da eta ni neu saiatu naiz apur bat horrekin apurtzen. Ez dut istoriorik kontatzen, baina gauzak bai.

Bi poesia mota desberdinduko nituzke, batetik poemaren eraikuntzari garrantzi handia eman dizkiodanak eta bestetik istorioak kontatzen dituztenak.

Zenbait topiko klasiko landu ditut, baina beti ere, ironia puntuarekin. Egunerokotasuna, gauak, mozkorak eta barneko mundu ilun eta nahaspilatsu hori kontatu dut.

— *Gustora zaude emaitzarekin?*

— Egia esan, liburua urte askotako lanen antologia da. Kalidade gorabeherak badituzte, baina horrelako xarma aurkitzen diet. Nik neure lana bete dut eta horixe dago adreilua. Irakurleak esango du esan behar duena.

Larrosak

"Itsastxoriak(k) armairu ispilua"rekin enkontra izan zenuenetik mokoaz (lumaz) joka ari zaio, asaldata, ispiluaren bestealdera tankeratu den itzalari galdezka. Eta aurrerantzean ispiluaren itzalarekin maiteminduta "izen bariko maitte kuttun" ezindua "argazkiarendako begitarte onena"rekin jarriko da, eta bere "Erretratoa" bestearen, itzalaren gainean mokoka idatziko du. Aurrerantzean handik jasoko ditu ilunaberrero "maitasun istorioak, urrun, lanbrotsuak", eta bere "buruaren irudi bakarra", "noizbheinkako erretratuei esker bizirik dirauena". Hara itzuliko da Grezia zaharretik hegan ibili ondoren zain daukan "hitzen baten" bila, "haizeei izena emateko gai senditzen" denean; eta, hauexek izango dira patuak opa dizkion "Larrosak", baina hori "noizean behin" bakarrik gertatuko da.

Armairuko ispiluari "noizean behin" galdezka deskubritu dugun itsastxoria -nabigante ororen patroia, bestealde- Jon Iriberrri poeta dugu. Euskal poesiagintzan bere bi maisuak Sarrionandia "Hango lehertze gorriak/hornitzera datoz sarri" (Ulyssesen bluesa) eta Atxaga "Arratsean, automobilak/kaletxoriak arkupetan bezalaxe/euren ibilbide berriak/kontatzeko biltzen dituk"-lirateke. Teperamentuz, ordea, **Izuen gordeleku...** mundu poetikora lerratzen da. Baina Jon Iriberrri Espainiako poesiaren ezagutzailerik ona dugu, batez ere azkeneko poesiarena. Baina azken poesia horren aitagoiak ere gogoko ditut, halanola Cernuda "Txipituz doa dena/eta aideak/ixten ari den liburuaren usaina du soilik" ("Porque también mueren los libros, aunque no perezca percibirse del olor"), eta Gil de Biedma, novissimoek zubi egiten dutelarik. Eta egungoen artean Garcia de Montero bat legoke, eta badu Jon Iriberriren poemariak "La otra sentimentalidad" izenez bataiatuturiko poesiagintzaren oihartzunik. Errima librean idatzitako lengoia kolokiala da; poemarioaren gai nagusiak amodioa eta denboraren iragana lirateke, baina ez dira gaiok erreflexio metafisiko abstraktu gisara poetizatzen, alderantziz, eguneroko esperientzi eta bizimodu arruntean poetizatu bait dira. Jon Iriberrik ez dio askorik zor oroimenari; eta jangoikoa, heroiak eta koherentziak ispiluarekin batera kraskatu direnean "gizonak/aspaldi ez du galderarik ispilurentzat". Guzti hau ironia xamurrean sujerituta dator **Larrosak, noizean behin** liburuan.

Iñaki Aldekoa



Lehen adbokazioa

Zain itzan heure larrosak:
urezta itzan ur gardenez
ilunabarrero
eta behatz punttekin
xamur zipristinddu
hosto, lore, arantza eta ernamuinak.

Gorde itzan heure larrosak
eguzkiaren astunak
ez ditzan ximel galdu
hatzapar hori goriez;


estal itzan heure larrosak
satiroen mihi, begi zorrotzetatik
beira zabal, ilun, lotsakor batez.

Zain, gorde, estal itzan
heure larrosak;
eta ez hadi larregi kezka
neguaren ezinbesteko etorreraz;

ez hadi larri
hosto, lore, arantza eta ermuin
hutsaren hurrengo izango badira
denbora ankerraren
oinots azkar isilen
iragan ostean.

Jon Iriberry

Onduline



TXOMIN HERIZ


eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



kontaizen, baina
gauzak bai"

literaturaz eta poesiaz: harduera me-
taletz direla usie dit eta aukeraz idaztea
aro garaiago. Horregatik ezaldu dit poesia
erakundeak bereziki bereziki idazteko
lekuak.

liburuzen usain du soilik" ("Porque tu
bien sabes que los libros, aunque no posean
el alma de los dios", dice Gil de Biedma
novelista que en su época gustaba de
escribir en prosa. En la novela de Montoro
de la época, se ve cómo se relaciona con
"La obra sentimental" tiene un balance
de poesía y prosa. En esta obra se
muestran los poemas que escribió en su
época de prosa. En esta obra se
muestran los poemas que escribió en su
época de prosa.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa



Billegia: Bideburua...

“Delitua dagoen tokian egongo gara”

Anton Egia, Arrasateko Ertzainburua

Anton Egia Basaurin jaio zen eta duela zortzi urte Enpresa pribatua lan egitetik ertzaina izatera pasatu zen. Gaur egun Arrasateko komisaldegiko ertzainburua da iazko abuztutik. Ertzaintzarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz hitzegiteko aukera eman digu.

— *Zergatik utzi zenion enpresa-gizona izateari eta Ertzain lanetan hasi?*

— Ez nuke jakingo esaterik zergatik. Egia da ertzaintarako izena eman nuenean urtebete neramala langabezian, baina halere lanbide hau gustokoa izan ez banu, ez nukeen aukeratuko.

— *Egon diren azken istiluak kontuan hartuz eta ertzaina zarenez, zer irudi uste duzu duela Ertzaintzak?*

— Nire ustez Ertzaintzaren irudia ona da bai orokorrean eta baita Arrasaten ere, zeren azken istiluak pertsona jakin batzuk eragin dituzte, ez da Arrasateko herria, betikoak dira, ehunen bat lagun sortarazten dituztenak.

— *Arrasateko Udala eta bertako alkatea HB-koak izan da, nolakoak dira bien arteko harremanak?*

— Uste dut ni Udalarekin eta Udalea nirekin ere ondo konpontzen garela, alkatearekin bi aldiz hitzegin dut eta ez dut aparteko gairik izan berarekin eztabaidatzeko.

— *Azkenaldi honetan, agintariak Espainako indar armatuetatik datozela eta Ertzaintzari ez dela euskal polizia bat esan zaio, Zer eritzi duzu salaketa horretaz?*

— Nik dakidanez, bertatik ikusita, uste dut badakidala gainera, gaur egun bi superintendente dira Espainiako indar armatuetatik etorritako mando bakarrak. Ertzaintza zuzentzen dugun gainontze-

ko agintariak lur honetan sortutakoak gara. Etorkizunari begira politikoeak daukate azken hitza, eurek jakingo dute gehiago ekarri edo ez.

— *Etorkizuna aipatu duzunez, nola ikusten duzu Ertzaintzaren egituraketa aurrera begira, esaterako terrorismoaren aurkako taldearen sorketaz?*

— Ez dago talderik terrorismoaren aurka borrokan egingo duenik. Pentsaturik Ertzaintza polizia integrala izan behar dela delitua dagoen tokian egon behar du, horren aurka egin eta kitto, terrorismoa izan edo beste delituren bat izanda ere.



Anton Egia

gehienak. Orain arte Martutenen egon dira eta orain aske daude, gaiztakeriatan badabiltza, ez dira inguru honetan ari. Ez dago garrantzi handiko delitu mota edo droga trafikorik Arrasaten.

— *Alkohola ere droga mota bat da, nola ikusten duzu alkoholemia kontrole-na?*

— Nire ustez, alkoholemia kontrol gehiago egin beharko lirake. Lur honetan ondo jan eta edateko ohitura handia dago, ohitura hori gizarateak onartzen duelarik. Ondo edatea gehiago kontrolatu beharko litzateke, zeren legeak markatzen duen 0,8ko neurria hartzeko nahiko da bazkari bateko ardo normala eta pare bat kopa.

— *Eta multak?*

— Handiegia dira dudarik gabe, Arrasateko arazo larrienetarikoak aparkalekue-na da eta multak 16.000tik 40.000 pezetara iristen dira. Hori Udalaren arazoa dela

iruditzen zait eta uste dut tarifa bereziak jarri beharko litzukeela, beste toki batzuetan egin den bezala, kontuan hartu behar bait da jendeak ahal duen tokian aparkatzen duela.

— *Harrituta samar utzi nau elkarrizketa hau egitera etorri eta erderaz hitzegin beharrak, uste bait nuen euskaraz jardungo genuela. Zein da zure ustez horrenbeste ertzain ez euskaldun egoteko arrazoirik aipagarriena?*

— Beno, akademian gauden garaian euskara ikastaroak egiten ditugu baina normalean ez dira nahiko izaten. Handik kanpo eta nire kasuan behintzat, hainbat saiakera egin ditut ikasteko, oraindik bakarrik zerbait ulertzeko gai naizen arren.

Dena den, uste dut Ertzaintzaren barruan ertzain euskaldunen presentzia Euskal Herriko populazioan bertan ematen den bera dela, hau da % 10a gutxi gorabehera. Beraz, euskara ez menperatzea ez dut uste bakarrik Ertzaintzaren arazoa eta kasua denik, Euskal Herriarena baizik.

“Ertzainaren irudia ona da bai orokorrean eta baita Arrasaten ere”

— *Talde berezi horien artean, nola ikusten dituzu “beltzak”, beharrezkoak dira Ertzaintzaren barruan?*

— Nire ustez, guztiz beharrezko dira gauza asko egiten dituztelako. Daukaten fama txarra bakarrik ematen duten egurratik ezagunak direlako da, eta ez beste gauza horiengatik.

— *Delitoez hitzegin duzu, zentzu horretan zeintzuk dira Arrasateko arazorik larriena?*

— Hemen gertatzen dena zera da, badaudela oso ezagun diren pertsonaiak eta horiek sortzen dituztela arazo

Eskubaloi taldea entrenatzaile barik

Iazko dimisioen ondoren zuzendaritzarik ere ez

Arrasate Eskubaloi Taldea une honetan entrenatzaile eta zuzendaritza barik dago, taldeko hiru ekipoe-tako kapitainek eskutitz baten bidez jakitera eman dutenez. Aipatutako eskutitzak dioenez, irailaren 14a baino lehen taldeak Euskal Federa-kuntzan izenik emango ez balu, posible litzateke desagertzea ere.

Gogora daitekeenez, joan zen ekainean Arrasate Kirolak Eskubaloi Taldeko zuzendaritza osatzen zuten zazpi lagunek dimisioa aurkeztu zuten, taldearen egoera bai ekonomia arloan eta baita kirol emaitzei zegokionez ere ona zelarik. Kargu uzte hori burutu zenetik gutxi gora behera hilabeteko epea zabaldu zen hautagai berriak aurkez zitezen, eta ez zen inor agertu.

Uda pasa da eta egoerak, zuzendaritza eta entrenatzaileari dagokienez, berdintsua izaten segitzen du, nahiz eta jokalariai entrenamendue-



Iazko Arrasate Kirolak taldea

tan hasiak diren, momentuz Jesus M. Herreroren gidaritzapean.

Arrasate Eskubaloi Taldearen hamahiru urtetako historia desager ez dadin, taldeko hiru ekipoe-tako kapitainek eskutitzean deialdi bat egin

nahi diete eskubaloiaren alde lana egin nahi duten guztiei, horretarako egunero arratsaldeko 7etatik 8etara bitartean Polikiroldegitik pasatzea besterik ez daukate. Ea bada, 14a aurretik gauzak konpontzen diren.




Jon Igoa Eibarrerako bidean

Jon Igoa arrasatearra eta Donostiako Errealean aurre-lari gisa jokatzeko ari izan denak Eibar aldean eman beharko ditu ondorengo ostikadak. Igoa berak Arrasate Press-i jakitera eman dionez luze joan zaio erabaki hori hartzea. Dirudenez Ingalaterra eta Japoniarako bidaiak egiten ari zirela, Boronat-ek esan omen zion hoberena partiduak jokatzeko zela eta denboraldi hasierarako behintzat berarekin ez zuela kontatuko, ondorioz Eibarrera joatea gomendatzen ziolarik. Ondo pentsatu eta gero, Igoak Eibarrera joatea erabaki du.

**E D E L
TAPIZTEGIA**

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

p o d i u m a

Igor Arenaza, Aretxabaletatik Athletic-era



Abuztuaren lehen egunean Igor Arenazak, bere ametsetariko bat lortzea burutu zuen, Bilboko Athletic futbol taldera lotzen zuen kontratua sinatzea. Duela hamasei urte Aretxabaletan jaio zen Igor Arenaza, bere lehen ostikadak Almeneko taldeetan eman zituelan. Almenen baloiaren atzetik egindako lehen karrerek izan dute bai eraginik Igorren bizitzan. "Behin maila horretan ezaguna egin nintzenez Athletic taldeko begiraleren batek ere nigan erreparatu zuen eta ondorioz etorri da fitxaketa".

Aretxabaletan jaioa izateak eta ondorioz gipuzkoarra izateak ez du Igor Arenazarentzat inolako traumarik suposatzen Bizkaiko talde nagusian jokatzegatik. "Betidanik izan naiz Athletic zalea, etxean ere gehienak horrelakoak dira eta niretzako poz handiena egunen batean bizi guztian gogokoen izan dudan taldearen kamiseta defendatzea litzateke. Herrian ere horrela ulertu dute eta jendeak kalean ikusten nauenean ea ondo edo gustora nagoen galdetzen dit. Uste dut eurek ere niregandik asko espero dutela, horregatik ahal dudan guztia egingo dut Athletic-eko lehen taldean jokatzeko".

Atxabaltarrak aipatzen dituen asmo horiek egunen batean igande-

roko errealtate bihur daitezten lehen urratsak ematen hasia da goleatzaile gazte hau. "Sinatu nuenetik hainbat partidua jokatu dut Athletic-eko gazte mailako taldearekin eta batean, Laredoko torneoan, goleatzaile trebeenari ematen dioten saria eramatea lortu nuen. Aurrekoak konfidantza ematen dit etorkizunean ere era berean jolasteko".

Futbolari batentzat futbola oso inportantea bada ere, ez du bizitzako atal bat besterik betetzen eta hain gaztea izanda garbi dauka hori Igor Arenazak. "Oraingoz asteburuero etortzen naiz etxera, baina gero ezingo dut hori egin. Badakit lagunekin orain dauzkadan harremanak nolabait apurtuko ditudala eta baita etxekoekin dudan lotura ere. Gainera, Aretxabaleta Bilbo baino askoz ere politagoa da. Dena den, izan dut lagun berriak egiteko aukera eta oso jatorrak direla esan behar dut, euskaldunak ere tartean direlarik. Argi daukat ahal dudan guztietan etxean izango naizela".

Arrasatearrak ondo Munduko Aletadun Igeriketa Txapelketan

Sonia Txaparro, Sonia Viamonte, eta Mirari Armendia arrasatearrak etorri berri dira Erroman burutu den Munduko aletadun igeriketa txapelketatik. Munduko txapelketa honetan hiru arrasatearrek lan ona egin badute ere, aipagarrienak Sonia Txaparrok egin dituen markak izan dira, Espainiako bi rekord gainditzea lortu du eta.

Selekzio gisa hamalaugarren postua lortu dute espainiarrek, berrogei selekzioren artean, eta hama-hiru rekord berri ezartzea lortu, horietako batzuetan, errelebo frogak kasu, arrasatearrek parte hartu dutelarik.

Hiru igerilariei buruz zerbait gehiago jakin nahi dutenez hona hemen datu batzuk: Mirari Armendia, 20 urte ditu eta Canarias-en INEF ikasketak egiten ari da. Sonia Txaparro, 17 urtetako gaztea, Oñatin ari da ikasten. Sonia Viamonte, beste Sonia Bezala, 20 urte ditu eta orain Arrasate Gasteizera doa bere ikasketak burutzera.



Iosu

argazki denda

Argazkilaritzarako
materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

TITULUDUNENTZAT IKASTAROAK 1990-91

ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA

I- IKASGELATIK ENPRESARA: EUSKAL ITZULPENGINTZA ikastaroa

Helburuak:

- Itzulpengintzaren ballabide teoriko eta praktikoen erabilpenean trebatu.
- Itzulpen-enpresa txikiak eratzeko prestakuntza teknikoa eskaini.

Hartzaileak: Euskal Filologia, Magisteritza eta Itzultzaile tituluaren jabe direnak.

Iraupena: Urriaren hasita, 380 ordu, arratsalde eta larunbat goizetan banatuta.

Irakasleak: X. Mendiguren, J. Zabaleta, J. Marin, E. Sainz, A. Sagarna, J. Bergaretxe, Lan Kide Aurrezkoa.

Aurre-inskripzioa: Eskoriatzako Irakasle Eskolan, irailaren 28a baino lehenago.

II- ESKOLA ETA LANBIDE ORIENTATZAILEAK TREBATZEKO ikastaroa

Helburua: orientatzaile talde profesionalak sortzeko prestakuntza teknikoa eskaini.

Hartzaileak: Psikologia, Pedagogia eta Magisteritza tituluaren jabe diren 20 ikastari.

Iraupena: Urriaren hasita, 560 ordu, kutsoko lehen bi trimestreetan egun osoz banatuta.

Irakasleak: L. Sarasola, P. Arbe, M. Recarte, S. Rodriguez, P. Aierbe, E. Sese, N. Alzola, J. Otaño, F. Murgiondo, J.J. Chinchurreta, F. Garmendia, A. Acha, G. Barasorda, Sagazde, J. Bergaretxe.

Aurre-inskripzioa: Eskoriatzako Irakasle Eskolan irailaren 28a baino lehenago.



IRAKASLE
ESKOLA

DEBA GARAIKO
UDAL-ELKARTEA



Eusko Jaurlaritza
Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila

III- SOZIOLOGIA

"A": Euskal soziologia: Sarrera

"B": Euskal soziologia: Sakontzea.

Irakasleak: J. Arejolaleiba, K. Zuazu, K. Amonarriz, J.M. Sanchez Carrion.

Iraupena: Urtarrilean hasita, 60 ordu, larunbat goizetan.

Prezioa: 15.000 pta. Eskoriatzako Irakasle Eskolan irailaren 28a baino lehenago.

MATRIKULA: Aurre-inskripzioa egin dutenen artean sarrera froga bat burutuko da garaiz ezagutzera emango zaien egunean, eta bertan gutiengo maila dutenekin osatuko da taldea.


Zer du erakargarri eskolara itzultzeak?



TAMAYOra itzultzea. Eta irudimenez beteriko mundu orijinal eta berezi batetan sartzea. Bertan, ikastaro bikain bat aurrera eramateko, behar duzun guztia hamaika eskolagairen artean aukera dezakezularik. Gainera, **TAMAYO**k ezustekoa emango dizu opari seguru batekin.



J. URIARTE



Elebitasunaren instrumentalizazioa

Behin eta berriz entzuten dugu elebitasun linguistikoa dela normalizatorako bidea. Hori engainu hutsa baino ez dela ikusteko nahikoa da errealitateari begiratzea. Izan ere, komunikabide, hezkuntza, administrazio, merkataritza, lantegi eta abar elebidunak al dira ba, beraien egin-kizunetan sektorerik gehientsuenak euskara aintzakotzat ere hartzen ez dutenean?

Eta pertsona mailan, zein da elebidun? Euskal-hiztunak izan dira soilik elebidun izatera behartuak. Badira zorionez, beren borondatez elebidun bihurtu diren erdal hiztunak ere, baina ez behar sozial derrigorrezkorik izan dutelako, ez behintzat azken urteotan. Beraz, elebitasun desorekatu baten aurrean gaude, bai euskara erabiltzen dutenen kopuru

aldetik eta baita euskarak betetzen dituen funtzioen aldetik ere.

Baina nortzuk dira elebitasunaren defentsa egiten dutenak? Nork gorai-patzen du elebitasunaren naturaltasuna?

Batetik, euskara baztertu izatea nolabait justifikatu beharra dutenak eta aldiberean "Euskaldun" titulua izaten segitu nahi dutenak. Bestetik, euskalduntzeko asmorik inoiz izan ez dutenak eta oraindik ere ez dutenak. Egungo politiko gehientsuenak ere multzo hauetan sartuko lirатеke.

Elebitasuna gorai-patzeak, erderaren aukeraketa baino ez du justifikatzen:

- Erderaz hitz egingo dut elebiduna naizelako.
- Elebiduna naizenez, erde-

raz hitz egingo dut, horrela guztiak ulertuko dute eta.

Nahikoa da esatea, normalizatorako bidea elebitasuna dela dioteneak, inoiz ez dutela azaldu zer den beraien ustez normalizazioa, zein den azken helburua lurralde jakin batean eta gune historiko honetan.

Normalizazioari buruz hitz egiten ari garenean, helburutzat hizkuntza autoktonoa berreskuratzea duen sustutuzio batez hitz egiten ari gara. Hau da, euskararen erabilpenari, hedapen sozial eta publiko osoa ematea. Eta honek, erabilpen linguistikoari buruzko arauen aldaketa suposatzen du.

Engainurik handiena da beraz, gauzak ez argitzea edo klarifikazio eza eta lortu beharreko helburuak ez finkatzea.

-Atalataikoan



**EUSKARA LANDUZ
EGUNEZ EGUN**

Erd u-AEK

Matrikula zabalik!!!

Maila guztiak, EGA eta Alfabetatzen

ARRASATEN: Erdiko kale 28, 1. Tfnoa: 79 71 12

BERGARAN: Barrenkale 18, 1. Tfnoa: 76 54 11

Bulego orduak: 10etatik 1era eta

4etatik 8etara

Epea 28an bukatzen da

izan euskaldun!



Alkohola eta gaztetxoak (III)

Drogomenpekotasunera bultzatzen duten faktore ezberdinak ezagutzen ez baditugu, neketsua izango da drogen aurka jokatzea.

Droga kontsumitzera bultzatzen duena ez da inoiz faktore bakarra izaten, faktore sozial eta pertsonalen nahasketa baizik. Orokorki, beren artean ongi lotuta egoten dira eta txanponaren bi alderdiak bezala izaten dira.

Horretara bultza lezaketen faktoreak ezberdinak dira:

1.- *Nortasunaren nahasketak*: espezialista batzuen eritziz, pertsonak izaten omen ditu izaeraren aldaketa batzuk berehala ase edo betetzea eskatzen dutenak, nahiz eta epe luze-ra kaltegarria izango dela jakin.

2.- *Heredentziako faktore genetikoa*: alkohola eta tabakoaren kontsumorako sortzetiko jarrera

dagoela esaten dute, edo hauekiko jasankortasun edo tolerantzia lortzen dela emaldi garaian.

3.- *Norberaren garapenaren atzerapena*: haurtzarotik heldutasunera pasatzerakoan gizarte edo ingurune kulturalak eskatzen dituzten helburu batean edo gehiagotan, gaztea, bere lagunekiko atzeratuta geratzen denean. Horrelako helburu batean porrot egitea bultzada izango litzateke drogen, legal nahiz ilegalen, kontsumorako.

4.- *Jakinmina*: esperientzia berrien bilaketa, inguruan etengabe kontsumitzen ikusten dituen alkohol eta tabakoan zer dagoen ikusi nahia.

5.- *Lortzeko erraztasuna*: edonoren eskuetan egon daitezke alkohola eta tabakoa; haurrek ere beren etxetan aurki ditzakete. Gero eta eskuragarriagoa da edozein droga.

6.- *Informazio desegokia*.

7.- *Familiarteko arazoak*: familia apurtuek eta seme-alaben garapenerako behar den babesa eta segurtasuna ematen ez duten sendiek drogen kontsumora bultzatzeko kondizio egokiak sor ditzakete.

8.- *Sistema sozio-politiko-ekonomikoa*: "Toxikomanoa egoera sozialaren biktima dugu beti. Balio kulturalen desintegrazioak, hustutasun izpiritualak, egungo bizimoduaren egonkortasunik ezak, produkzioari eta kontsumoari ematen zaien garrantziak, hiri eta lantegiak sortzen duten giro deshumanizatuak... droga kontsumitzera bultzatzen dute, eta gobernuen permisibitatearekin, gazteak bere bizimodua drogetan murgiltzea ahalbidetzen dute.

Eukeni eta Arantxa

Irailerako Kultur Ekintzak

• ZINEMA: Amaia antzokian

- 13an "Este muerteo está muy vivo"
- 20an "Trilogía de Nueva York"
- 27an "Una historia china de fantasía"

• MUSIKA: Monterron Parkean

- 15ean OTXANDIOko Musika Bandaren kontzertua



Arrasateko Udala




Gipuzkoako Foru Aldundia

Oroitzapenetan itoak

Berriz ere heldu diogu uztaillaren azken astean jarein genionari eta orainez gero urrintzen hasi zaizkigu gure oporraldietako gogoetak. Baina ziuraski oporraldietan ateratako argazkiek oraindik ere irrifarrea sortaraziko digute eta kontuan izango dugu oraindik ere zer posturatan jarri behar izan genuen efekto hura lortzeko. Oraindik ere, gogoan izango ditugu ondo-ondotik pasa zitzaizkigun sarrioak eta guk ezin jaurti gure erretratorik makina motxila barruen geneukalako. Ez zaizkigu ez, samur-samur gure barrutik joango, urrinean ikusten zen mendi hura igotzeko isuri behar izan genituen izerdiak.

Hozkailua zabaldu eta ur botilari tragoat egiten diogunean gogo handi barik eraten ari garela konturatuko gara eta inoiz urik eran baduzu, hori mendiko plazerra dela konprenituko duzu.

Nahiz eta amaren makarroiak ede-



Piedrafitan Euskal Federakundea egiten ari den aterpea, bere eskumetara Faxa mendia ikus daiteke

rrenak izan, gogoratuko dituzu campingasaren gainean egindakoak, nahiz eta pegauta eta gatz handi barik egon eta pentsatzen jarten bazara jabetuko zara mendian beste indar batekin hel-tzen zeniola sardeskari, eta azkenik, agian, irudituko zaizu mendiaren edertasuna deskubritzeko eguneroko kaleko erosotasunak utzi beharrak

merezi duela. Eta hau dena modu onenean eginez gero inoiz mendira joan ez denarekin, mendiak bere biho-tza irabaziko dio.

Geure aipamenik maitagarriena mendira joan eta eguzkia esnatu baino lehen jaikitzea gustatzen zaienei.

Hankamotz

ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Zarraoa

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

90-91

IKASTURTEA

Informatika • Kontabilitatea.
Takigrafia • Mekanografia.
Klase partikularrak.
Injinerutza Teknikoa:
Termodinamika.

AKADEMIA

BASTIDA

INEM eta HOMEOLOGATUTAKO IKASTURTEA

Informazioa eta izen ematea:
Ferrerias 44,
Tfnoa: 79 77 13
Arrasate

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

PAZI-OLA SA


Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

ARRASATE PRESS

Tfnoa: 77 08 15



MEREZI DU

ESKAINTZA

Erritmoa	Iraupena
Egunero 2 ordu	Iraila-Ekaina
Egunero 3 ordu	Iraila-Ekaina
Egunero 4 ordu	Iraila-Abendua
Egunero 5 ordu	Iraila-Otsaila

Alfabetatzeko ikastaro bereziak

BEKATZE SISTEMA

MATRIKULALDIA

Irailaren **3**tik aurrera

Bulego ordutegia

Goizez	9.00-12.00
Arratsaldez	15.00-19.00

Arimazuri 2, Tfnoa: 79 70 77 ARRASATE



Aste gazte

Berriro zuekin!!
 Abuztua, beti bezala,
 konturatu gabe joan zaigu
 eta hastear dagoen
 ikasturtea prestatzen hasi
 behar dugu. Horretarako
 behar duzuen informazioa
 lortzeko, hemen gaituzue.

Autobusak

• Donostia edo Bilboko Unibertsitateetara egunero autobusez joateko interesa duzuenok, Gazteentzako Informazio Bulegotik (Garibai Etxea) pasa zaitezte, edo telefonoz deitu (77 00 65) izena emateko. Apuntatzeko epea irailaren 11ean (asteartea) amaitzen da.

Borondatezko lanak 3.munduan

• Afrika, Asia eta Hegoamerikan, 25 urtetik gorako lizentziatuentzat. Gutxienez, bi urtetako egonaldiak. Lan-arloak: nekazaritza, osasuna, hezkuntza, gizarte-ekintza, etab.

Bekak

• Arlo zientifiko-teknikoetan goi

mailako titulatuentzat prestakuntzabekak, honako arlo hauetan: atmosferako kutsadura, biotransformazioa, robotika, etab. Diru-kopurua: hileko 95.000 pta. Epea: 90-9-20 (BOE 90-7-11)

• Estatu Batuetako Unibertsitateetan doktorakuntz tesia egiteko bekak. Lizentziatuentzat. Ingelesa menperatzea. Diru-kopurua: hileko 150.000 pta. eta bidaia. Epea: 90-9-20 (BOE 90-6-27)

Lehiaketak

*"Ateneo de Ermua" III Bideo Lehiaketa Nazionala. Gai librea. Iraupena: gehienez, 30 minutu. Partehartzaile bakoitzak, gehienez, 2 lan aurkez ditzake. Beta edo VHS. Sariak: 100.000, 50.000 eta 25.000 pta. Lanak aurkezteko epea: urriaren 26rarte.

• Margo Sariketa aire zabalean. Deban. Irailaren 9an (Igandea). Gai eta teknika libreak. Sariak: a) Helduak: 50.000, 40.000, 30.000 eta 20.000 pta. b) Haurrak: 8.000 eta 5.000 pta. Dietak: 1.000 pta.

• "Julene Azpeitia" III. Ipuin Lehiaketa. Euskaraz. Gai librea. Gutxienezko luzapena: 12 orrialde.

Sariak: 250.000 eta 100.000 pta. Lanak aurkezteko epea: irailaren 30erarte.

• IX Argazki-Safaria, Balmasedan. Zuri-beltzez. Irailaren 16an. Izen emateak: egun berberan (250 pta.). Ibilbidea eta tokiak: lehiaketa hasi orduko jakinaraziko dira. Sariak: a) 16 urtetik beherakoentzat: trofeoak (3 sari). b) 16 urtetik gorakoentzat: 20.000 eta trofeoa, 15.000 eta trofeo, 10.000 eta trofeoa.

• "Amurrioko Hiribildua" I Kirolei buruzko Argazki-Lehiaketa. Gaia: Kirola. Zuri-beltzez edo kolorez. Sariak (modalitate bakoitzeko): 25.000 eta trofeoa, 20.000 eta trofeoa, 15.000 eta trofeoa. Lanak aurkezteko epea: urriaren 14erarte.

Txapelketak

• Artzai-txakur txapelketa. Oñatin. Irailaren 23an, goizeko 11etan.

Kultur gertaera aipagarriak

• Irailak 7tik 14ra: Arabako Nazioarteko Aste Korala

• Irailak 20tik 29ra: XXXVIII. Nazioarteko Zinemaldia Donostian.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzuan, ☎ 77 00 65

"PAL"
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

Altzariak
 Diseinua
 Apainketa

M
AREN
AZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

TEKUN

Fotokopiak
 Enkuademazioak
 Planoen erreproduzioa
 Offseta

Ferrerías 23,
 ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
 BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN
 IZEN-DEITURAK.....
 HELBIDEA.....
 HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

ARRASATE
PRESS

Tfnoa: 77 08 15

ETXEBIZITZAK

- Neska ikasleek pisua behar dugu alokatzeko. Tfnoak: 72 11 43 Begoña, eta 55 45 35 Juana.
- Pisua alokatzen da Erguinen. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 40.000 pta. hilean. Tfnoa: 21 12 25, 10etatik aurrera.
- Alde zaharrear etxe merkea erosiko nuke. Deitu goizez edo arratsaldez 77 09 40 tfnora.
- Neska ikasle taldeak alokatzeko pisua behar dugu Arrasaten. Harremanetan jartzeko deitu 69 08 19 tfnora.
- Etxebizitza salgai Zarautzen, hondartzatik 5 minutura. 82 m. Tfnoa 83 11 63
- Guztiz berriztutako etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, jangela, hall-a, bainugela, homitutako sukaldea, ganbara eta berotze sistema. Makatzena 15, 4 C. Tfnoa 79 49 49
- Apartamentua alokatzen da Laredon. Interesatuak 793147 tfnora deitu.
- Alokatzeko etxebizitza bila gabiltza. Dei egin 94-683 09 48 tfnora.
- Etxebizitza saltzen dut San Andresen. Zabala, ikuspegi onekin. 4 logela eta egongela, 2 bainugela eta jarritako sukaldea. Aszensorea, berogailua, antena parabolikoa eta hari musikala. Interesatuak 79 51 09 tfnora deitu.
- Baserria salgai. Bergararik 2 km-ra. Interesatuak goizeko 10.00ak eta arratsaldeko 7.00ak artean deitu. Tfnoa 77 00 81

LANA

- Andra, 40-50 urte bitartekoa, etxeko lanak egiteko behar da. Interna. Tfnoa: 79 16 63
- Neska euskaldunak umeak zainduko lituzke udako hilabeteetan. Tfnoa: 79 98 30.
- Neska prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 9.00etatik 15.00etara eta 19.00etatik 22.30ak bitartean. Yoliz galdetu. Tfnoa 79 95 96
- Neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Dei egin goizean 9.00-3.30ak bitartean eta arratsaldez 7etatik 10.30etara. Mari Josez galdetu. Tfno 79 95 96

SALEROSKETAK

- R 12 egoera onean eta merkea salgai. Tfnoa: 79 17 21. Inaki.
- Camping-denda famillarra salgai (4 plaza), hozkailu txiki eta guzti. Deitu 79 54 28 tfnora.
- 90 zm-ko bi ohe, bi gaumahi eta 1,60 m-ko armairua salgai. Egoera onean eta merkea. Tfnoa: 79 33 56.
- Haur bizikleta GAC salgai 12-14 urte bitartekoentzat. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.
- Karro denda salgai. Tfnoa: 79 41 68.
- Salgai daude: Pastelentzako kamara-bitrina ia berria. Pastelentzako laba berria. Izozkientzako kamara ia berria. Bronztzeko lanpara ederra. Prezio interesgarriak. Tfnoa: 79 23 58 eta 77 00 91.

- Peugeot karrerazko bizikleta, egoera onean salgai. Tfnoa: 79 23 61. Haritz.
- Kitarra elektrikoa eta distortsio pedalk ditut salgai. Tfnoa: 79 25 10.
- Karreratako bizikleta salgai. Gutxi erabilia, arina, freno-kableak barrutik, kilometro kontagailuaz. Prezioa, oso modu onean. Tfnoa: 76 32 69.
- Izozkailu espositorea eta "Mikra" pixu elektronikoa salgai. Tfnoa: 78 04 06. Deitu goizetan.
- Violoncello berri-berria salgai. Interesatuak deitu 79 47 95 tfnora 8etatik aurrera.

DENETARIK

- Egunero goizez Bilbora joan behar dut eta ez daukat autorik. Zeurean lekurik baduzu, deitu 79 32 02 telefonora. Gas-tuak erdibana. Deitu lehenbailehen.
- Gela konpartitu baten ohea alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Frantsesetik Itzulpenak eta bestelako mekanografi lanak egiten ditut. Ana. Tfnoa 795676
- Eraikitzeo lurra behar da Arrasate, Aramaio edo Aretxabaleta inguruan. Deitu 792586 tfnora
- "Umezaintza" haur-eskola. 90-91 ikasurtean klaseak irailaren 10ean hasiko dira, iaiztik Umezaintzan daudenentzat, betiko ordutegiarekin.

ARRASATEN HILDAKOAK

M^a Akizu Ormazabal
Abuztuaren 27an, 67 urte

Cecilia Gomez Ruiz
Abuztuaren 27an, 82 urte.

Brigida Hernandez Celorrio
Abuztuaren 28an, 89 urte.

Felisa Mardaraz Eluztondo
Abuztuaren 28an, 62 urte.

Asier Arriolabengoa Ganboa
Irailaren 1ean, 25 urte.

Roman Etxebarria Altuna
Irailaren 3an, 81 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Famauen ahotik

Agur esatera gatoz



Jexusmari eta Estepan

Ez genuen askoik uste 1989ko hasieran, urte t'erdixen jarraituko gauela "Famauen ahotik" izeneko artikulu hau Arrasate Pressera ekarten. Joxe Etxagibelengandik hasi eta Sabina Etxebarriaiaño, astero astero izan dugu mundrautarren bat bere eta bere sasoiko kontu polittekkontetan. Eurek ein ddotokuen harrera ederrai esker jarraitu dou hainbeste denpora. Banakiek esan dosku gurau laukela entrebistaik ez eittie. Gehixenetan atiek parez pare zabalik topau dittugu. Beste ifok baiño lehenau eurek merezi dittue gure eskerrik beruenak.

Laguntzailliek pe izen dittugu, nor entrebistau geinken behin baiño sarrixau esan izen doskuenak; batez be, Josu Otañui eta Karmelo Uribarreni badutzau zorrik.

Azkenik, zuri irakurle, astero astero orri erdi hau leiru dozun horri dotsuau zor haundi bat, leiruten zala jakittiek emon doskun animuatik.

*Kartxel eta Dolores Karrakirri
goguen*

Geuk dakigule behintzet entrebis-

tau dittugunetatik bi juen jaku. Kartxel entrebistie eifn eta artien publikau barik gaukela hil zan eta Dolores be berakin egon eta handik lasterrera. Etxaku bela ahaztuko eurekin pasau gittuen momentu ederrak.

Laster arte

Agur esatera gatoz, baiñe ez luzerorako. Mundrauko "famauen ahotik" lehenauko kontuek jasoten jarraitu gure gauke eta horretarako pozik hartuko gauke zuen laguntzie, nor entrebis-tau geinken esatie.

Horretaz aparte oiñ arte Arrasate Pressen emondako kontuek txukun txukun jarri eta liburutxo batetan agerketako gogoik pe etxaku falta.

Baiñe bueltan beste eskeintza bateaz etorri gure gauke Arrasate Presseko orrixetara: papel zaharretan batutako Mundrauko kontuekin.

Lar ainketie ete da? Ia ba, asmuek egi bihurketan dien. Agur, laster arte.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

Zelebrequerixak

Hau Mondrauen pasau ei zan. Badator txofer bat kriston abixadan bide nausittik eta aguazilak txilibitu hots bat geldittu erain dotsa. Aguazilak, urreratu eta libretia etara.

— Baiña nik ze ein ddot?-txoferrorrek serixo.

— Herri barrutik orduko hirurogei kilometruan joan.

— Hirurogei kilometro orduko? Zelan eruango dot pa orduko? Oindiok etxetik urten dotela orduerdi be ezta ta.

Aguazilak buruai hazka eifnaz:

— Bueno, bueno, barkatu. Hola badok jarraitu heike.

♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦

Fernando Plaentziarrak bazeban "Donosti" deitzen zotsen lagun transportista bat. Donostiar hau tiriki-tarraka ibiltze ei zan batera eta bestera bere kamioi zarrakin.

Estraperlo denporan ziren harek eta Donostik, dirua franko eindda, kamioi zarra saldu eta berrixa erosi ei zeban eder askua.

Aspaldixan alkarrekin egon barik ei zeren eta Plaentziatik pasau zan baten Fernando agurtzera geldittu ei zan.

— Zer, kamioi barrixa erosi dok ala, Donosti?

— Bai, honek bi hil dizkik oraintxe- kontestau zotsan harro harro.

— Bi hil dittuala? Arraixuak ez-paittuan! Apartatzera najoiak etxuat hirugarrena izan nahi eta.

Juan Martin Elexpuru

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

APOTZAGAN

S. Migel jatetxea

Egunero arratsaldeko

7etatik zabalik

Tfnoa: 77 04 94 / 79 83 93



Portaloï inguruan, 1943

San Juan eguna zen. Mondrak Tolosaren kontra jokatu zuen Gipuzkoako koparen finala eta irabazi (5-0). Artean futbol-zelaia oraingo Gelma eta Ertzaindegiaren artean zegoen, eta laster desagertzeko zorian. Beraz, Mondragoe Gipuzkoako txapeldun izanda, futbol-zelai barik geldituko zen. Hogeitahiru egun lehenago, ekainaren batean, On Jose Maria Arizmendiarietak (bi urte zeramatzan Arrasaten) *Juventud*

Deportiva de Mondragon sortu zuen, hainbat gazteren laguntzarekin. Hauek ez zuten nahi futbol zelaia itxi zedin, gutxienez berria egin bitartean. Zerbait egin beharra zegoen. Txapeldun berriei merezi zuten harrera egin eta futbol-zelaia eskatu. Futbolarien aldagelak Maala kalean zeuden, gaurko Elkororen dendan. Txapeldunak garbitu eta jantzi ondoren, plazaraino egin zen bidea, aurrean musika banda zihoala. Juventud Deportivakoek eta mutikoek haiekin batera, "*queremos campo,*

queremos campo con vallau!" oihukatu zuten behin eta berriro, bai kaleetan barrena eta bai Azurzaren etxean, plaza aurrean, hura bait zen jabea. Azkenean Iturripekoea egin zen arte, ez zen zaharra itxi. Azgazkia Bancò Guipuzcoanoko hesitik aterata dago. Atzean Monte tabema. Eskuinean gasolindegia eta prentsa saltzeko kioskoa. Errepublikara garaian La Voz de Guipuzcoa, El Sol eta El Liberal egunkariak besteak beste, saltzen ziren bertan.




ETXEPARE - BILINTX LIBUBUBENDÄ


Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA


Hieroglifikoak



Etxetik aldeginik, non egingo duzu lo?



Ur korrenteak



Nola geratu dira uholdearen ondoan?



Ez da zilegi

- ERANTZUNAK:
1. Zu-Bi azpian: Zubi azpian.
 2. Er-Re-Kak: Errekak.
 3. Eixe-nk gabe.
 4. De-Be-Katu-D-U-Te: Debekatu due.

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Burokrazia


S

ixto Martínezek Sevillako koartel batean bete zuen soldadutza. Koarteleko patioaren erdian eserleku bat zegoen. Eserlekuaren ondoan beti egon ohi zen soldadu bat goardia egiten. Inortxok ere ez zekien zergatik egiten zen eserlekuaren ondoko goardia. Egin egin behar zelako egiten zen, gau eta egunez, gauero, egunero, eta belaunaldiz belaunaldi ofizialek agindua eman eta soldaduek bete egiten zuten. Inork ez zuen dudarik egin, ezta galdetu ere. Horrela egiten bazen eta betidanik egiten zen horrela, zeozergatik izango zen.

Eta horrela jarraitu zuen norbaitek, ez dakit zein jeneral edo koronelek, jatorrizko aginduaren berri jakin nahi izan zuen arte. Gogotik miatu behar izan zituen ardoak. Eta luze arakatu eta gero, argitu egin zen kontua azkenean. Hogeitamaika urte, bi hilabete eta lau egun lehenago, ofizial batek eserlekuaren ondoan goardia egitea agindu zuen, pintatu berria zegoenez ez zedila inor pintura freskoaren gainean eseri.

Eduardo Galeano, El libro de los abrazos

Itzulpena: J.I.



MIKEL LASA

ASEGURU ARTEKARITZA

**ASEGURU
ARTEKARIA**

Zure esanetara gauzkaku!

Maelako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

■ **Udako Goizean behin.** Abuztua oso hil atipikoa izan ohi da irрати gehienetan. Euskadi Irratian behar bada, beste inon baino gehiago igartzen da ezohizkotasun hori, zeren mikrofonoak ahots gazte eta eskamenturik gabekoz betetzen bait dira.

Ez dago dudarik ikasleentzat -gehienak kazetaritza ikasleak izaten dira,- aukera ona izaten dela praktikak egiteko. Txarrena zera da, zenbaitetan ganoraz irakurtzeko ere arazoak dituzten gazte horiek profesional esperientzidunen kontrapisurik ez dutenean, entzuleentzat ere gonbite tentagarri izan ohi direla, beste emisoratan barrena abiatzeko.

Goizean behin saioak izan ditu zenbait aldaketa abuztuan bertan, esatari berrien arteko hainbatek oporrak hil erdian hartu behar izan dituelako.

Nahaste honetan, saio bat egon da ikaragarri gustatu zaidana, egunero pertsona bati egiten zitzaion elkarrizketa luzearen hondarrean egiten zitzaizkion galdera laburrak: odolostea ala hanburgesa?, txakolina ala sagardoa? irratia ala telebista? eta abar luzea galdetzen zitzaion elkarriztetatuari, azkenean erretrato psikologiko polita erakutsiz. Bernardo Atxaga, Erasun segalaria, eta Paulo Agirrebaltzategiren kasuetan behintzat oso polita iizan zen.

■ **Azken erromantza.** Julian Gaiarre tenore nafarraren bizitza kontatzen duen produkzio honen boskarren kapitulua ikusi nuen. Motela, aspergarria, gaizki egina... ez dakit zer gehiago esan.

Ez zen serie merkea izango, zeren Jose Carreras, Sidney Rome, Jose Ferrandisek eta, dexente kobratuko dute, baina halako istorio lerdoa kontatzeko ez zen koprodukzio berezirik behar. Nafarroako Gobernua eta Euskal Telebistak besteak beste, jarri zituzten xoxak. Ea hurrengoan asmatzen duten.

Joxe Aranzabal

bideoak



Pitiren abenturak

Eskoriatzako Irakasle Eskolako talde batek bideo didaktikoak prestatzeari ekin dio. Lehena *Pitiren abenturak* deituriko hau da, O.H.O-ko bost eta seigarren mailetarako egina. Inguruaren beharretara irakasle-goa motibatzea, lan teknika eta materialak ezagutaraztea... du helburua

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



gusto baduzu

■ Ederra eta piztia


Pelikula zahar famatuaren bertsiio berria kapitulotan, astelehentik ostiralera. Cathy, ederra, eta Vincent, piztia, arazo berezi baten aurrean agertuko dira egun bakoitzean. Gauza berezi bezala, protagonisten euskalkia. Entzuten den ahotsak ez du ohizko batuan hitz egiten, eta atentzioa ematen du lehenengo aldiz entzutean.

■ Arratsalde zakurra

Sidney Lumet zuzendariaren pelikula eskaintzen digu ETB-k gaueko pelikulan. Al Pacino, John Cazale, Charles Duming, eta James Broderick-ek antzeztua. Esperientziarik gabeko hiru lapur furgoi blindatu bat ostu nahian ikusiko ditugu. Ostirala, irailak 12, 21.50etan.

■ Goi lurraldearen bihotza

Nobedadea aste honetarako. Sam Pillsbury zuzendariaren eskutik, Zelanda Berrian 1870. urtean kokatutako istorio honek, Ceci, 17 urteko neska gaztearen bizitza kontatzen digu. Neskame joan eta familiaren berorik gabe, bakardadean... bizitza latz baten testigantza. Ostegunero 21.50etan.



Haitises (Errepublika Dominikarra).
Badirudi *Pepe Arregiri* asko gustatu zitzaiola Errepublika Dominikarra, iaz bezala aurten ere hara joan da eta. Haitises-eko parke naturalean Santiago ezagutu zuen, argazkiko lagun beltza, eta kobazuloak ikustera joan berarekin. Stressa kentzera joan eta erabat berriturik etorri omen da, ATBko lanari berriro ekiteko.

aste ko

PROGRAMAZIOA

10 ASTELEHENA

20.00 **Berriak**. Aurkezlea Koldo Rodriguez
20.20 **Mondrasport**, Beñardo Kortabariak aurkeztua
Berriak (errepikaldia)

11 ASTEARTEA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)

12 ASTEAZKENA

20.00 **Berriak**. Aurkezlea Koldo Rodriguez
20.20 **Zenbat buru hainbat aburu**, mahaingura. Moderatzailea Jose Mari Velez de Mendizabal. Arrasatearren esperientziak oportetan.
Berriak (errepikaldia)

13 OSTEGUNA

12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)

14 OSTIRALA


20.00 **Berriak**. Begoña Garaik aurkeztuak
20.20 **Erretroat**. Aurkezlea J.R. Elorza. Gontidatua Sabin Arieta.
20.50 **Musikantol**. Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek aurkeztua
Berriak (errepikaldia)
15 **LARUNBATA**
12.00 **Berriak** (bezperakoa)
12.20 **Erretroat** (bezperakoa)
12.50 **Musikantol** (bezperakoa)



Inverary (Eskozia).
Hilabete t'ardi egin du *Begoña Garaik* Eskozian, Edinburgon zehazkiago, ingelesa ikasten. Ikasi bai, baina bihurtu ere bai, eta gure Begoñak bazterrak ikusteko aprobetxatu zuen. Inveraryko gazteluan bi gazte xarmant ezagutu zituen. Eurak gonaz jantzita eta bedoñatarra frakatan. Mundu aldrebesa !



Gavarnie (Frantzia).
Koldo Rodriguez Piriniotan ibili da gurasoekin batera. Aita gasteiztarra eta ama otxandiotarra, biak gorputzaldi paregabe. Izan ere, hamabi egunetan zehar Ordesa, Añisclo, Troumouse eta bestelako tontorretan ibili dira. Argazkia Gavarnie-ko zirkoan atera zuten, 2.500 metrotik gora.



ERDIKO KALEAN GAITUZU

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63



MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75

ARRASATE



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zer den jakin gabe zeozeren bila ibiltzeak zeharo desorekatu zaitu. Kontuan izan urduritasun hori lasaitu asmoz alperrikako gastuak eginez eta besteak irainduz zabiltzala.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Zeure onetik aterata ibiliko zara aste honetan eta ez da asko beharko horretarako. Ebitatu horrelako jarrerak jende aurrean lotsagabe azalduko bait zara.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Urduritasunak okertu egingo dizu datorren astea. Beharbada ez zara oso ziur sentituko eriztiak ematerakoan eta isiltasunean hobeto sentituko zaren ustea izango duzu. Ez daukazu harreman hori konpontzeko gogo handiegirik.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Bizimodua ez da zuk nahi bezalakoa. Pagan-dako momentu onak errepika ezinak dira. Hau ez da destinuaren adarjotea, aurrera egiteko puntada baizik. Maitasuna ahulduz doa.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Intuizioak esandakoaren arabera jokatu eta asmatu egingo duzu. Gainean izango dituzu denak. Familia ere zure beharrez izango da, izan zaitez eraginkorra beraiekin ere.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Ezinbestekoa izango da oraina bizi izatea, beraz laga itzazu alde batera bai iragana eta bai etorkizuna. Eziezu jaramonik egin besteen esanei, zeureari utsi. Ez da gorabehera handirik izango laguna eta bion artean.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Amorru bizian daukazu barrena eta besteekiko harremanak eragozteko baino ez duzu lortuko. Ez zara oso zoriotsu izango zure sentimentuak isilean gordetzeko modukoak izango direlako.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Egoerari aurre egitea ez da erremediorik onena zuretzat. Besteek ez dute ikusiko errealitatea zein den; halere egonari pixka bat edukizu denbora pasa ahala konturatuko bait dira.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Izan zaitez eraginkorragoa zure lanean, laga itzazu alde batera emaitza onik ekarri ez zuten ideiak. Zeure kapazitateak eskaintzen dizuna probetxatu, baina ez espero emaitzarik.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ez zaitez mundu guztiari aurre egin nahian ibili eta batez ere jarriozu merezi duen arreta osanuari. Hain zorrotza izateak besteekiko harremanak hoztuko dizkizu.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Besteak kontuan hartu barik ekiozu lanari, denen onerako izango bait da. Zalantzak baino ez dira nagusituko zure inguruan eta errealitatea zein den ikustarazi beharko duzu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra


Ez itzazu epai besteak; ez al zaude zeu ere isilik egon beharrez? Familiarekin tirabirak izateko arriskua sumatuz gero, urrun zaitez. Zure ideiekin koherentea izaten saia zaitez.



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...


Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnok: 79-24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

AZ

 tarjeta 6000

Tarjeta 24

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

CADUCA FINAL ▶

GK TXARTELA

Aldean eraman aldiro

Gipuzkoako Kutxaren
GK Txartela eraman behar
da aldean, eguneraturik
egoteko.

Gipuzkoako Kutxaren
Kutxazain Automatikoetan
erabateko erosotasunez
iharduteko.

Edozein dendatan aldean

eskudirurik eraman gabe
ordaintzeko.

AZ Bulegoetako zerbitzuez
baliatzeko.

Era automatizatuan eta
ordutegi zabalagoan.

Eta diru-arazorik gabe
bidaiatzeko.

GK Txartela.

Aldean eraman aldiro.

GK:

**GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA**

IKER

**BAINUGELA
LILURAGARRIAK**



BAINUGELA-ERAKUSKETA:
Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42 ARRASATE